
ANES EZ DA ANE

Arana-Goiri'tar Sabin'ek atera zuen bere garaian Euskal Izendegi bat. Santuen izenak ziran euskera-antzera ipiñita. Esate batrako: Anastasio Anastasi.

1972'garrenean J.M. Satrustegi'k beste bat Euskal'erri'ko idaztietan arkitzen direnak.

Gaurko egunez, berriz, Izaki osoaren izenak jarri dizkiete gurasoek euren umeei: Aizea, Itsaso, Lur, Arri, Arkaitz, Ibai eta bestelako izen xeblebre guztiak. Orretan askatasun oso-osoa dago bai Elizaren aldetik eta bai Udal-etxeen aldetik; baña, ni orain 81 urte jaio nintzanean ez zan orrelakorik: Elizako santuen izenak bear ziran, nai ta nai ez.

ANES izena lekittarrek erabiltzen zuten eta oso zan ezaguna Lekeitio'ko kaleetan 1912'garren urtean, Eustakio'k bere lenengo aurra izan zuenean. Berau Sabin'en jarraitzalea zan eta bere semeari euskal izena ipiñi nai zion. Itz egin zuen bere emaztearekin eta, Anastasio'ren ordez (nere amaren aita), ANES ipintzea erabaki zuten.

Joan zan Eustakio eleizara eta ori ez zala santuen izena, bota zion aurpegira txanburuak. Andik Udal-etxera abiatu zan; baña, alperrik. Emen ere berdin erantzun zioten: Ori ez zala ume bateri ipintzeko izena.

Eustakio'k, ordea, bere astuari arre: Au neure semia dot eta neuk nai dodan ixena ipiñikotzat. Baita ipiñi ere: Sekulan, jaio nintzen egunetik eurok il ziran egunerarte, neure gurasoen agotik ez det ANES beste izenik entzun. Nere senitarte guztian ez zekiten nik beste izenik nuenik ere. Bada gure artean Anastasio bat (Albisu Ayerdi), ni baño iru urte gazteago, eta izen ori berak eraman du beti, nik neurea eraman dedan bezala.

Nik paperak bear izan nituen artean, ez nuen jakin neure paperetako izena ANASTASIO (ANASTASI) zanik ere. Apaiztu ninduenean, Meza berriko txartelatan Anastasio izena ikustean, arriturik galdetzen zidaten: - I ez al aiz ba Anes?

* *

Nere izenaren okerkeriak ez dute amairik. Orain ogei urte inguru, Anes Lazkauko ezizenakin lanak argitaratzen nituenean, nere OTO TA POTOTO'tik, txiste bat aukeratu zuen irakurgai Zarautz'ko Ikastolak eta izena ANE biurtu zidaten: Ane Lazkauko. ZER, gure aldizkari jatorrean ere, aldi batean Ane Arrinda izenakin zuzentzen zidaten ale bakoitza. Eusko Jaurlaritzak bialtzen dituen BERRIPAPERA oietan ere ANE ARRINDA nintzan. Zuzentzeko esan eta gauzatxo batzuek zuzendu zituzten, baña izenik ez, ANE ori or zegoen zutik. Bigarren mezua bialdu nien; alperrik. Irugarrenean Anes izenari, "apaiza" irantsi nion eta oar auxe: Zalantzarik ba'dezute galdetu Mari Carmen'eri, izen orretxekin eza-gutzen nau aspaldiko urteetan. Irugarrenak balio izan zuen. Okerrak ez dute etenik: TXO, itxasgizonen aldizkarian, nik idatzitako Lekeitio'ko kanta batzuek artu dituzte gure EUSKERAZAINTZA aldizkaritik, eta berriro, ANE ARRINDA...

Onek ez du amaierarik. Orrelako izen aldrebesa al da ANES? Bada izen orrekin mutiko bat Deba onetan eta bere amari galdetu nion, zergaitik ipiñi zion Anes izena bere semeari. Euskal buruzagiren bat ote zan edo, erantzun zidan; baña, gauza garbirik ez zekien. Erruki diot. Nik eskari au: Nere giza-izakia ez aldatu, mesedez. Emaztekiak izaki xarmantak dituzu; baña, ni ez naiz emaztekoa.

Ekainillak 26.1993.
ARRINDA'TAR ANES

=>=< =>=< =>=<